

IRAKI ERASOTZEKO ASMOA. Bagdadek bere lurralde osoan AEBen U2 aireko espioen hegaldatzea onartu zuen egun berean AEBetako eta Erresuma Batuko airekoen bonbardaketek gutxienez bi zibil hil eta bederatzi zauritu zituzten Irakeko hegoaldean.

Erredakzioa | DONOSTIA

Munichen (Alemania) eginiko bilkuran NATOren historian estreinakoz herrialde kide batek —Turkia— erakundearen IV. artikuluari heldu zion atzo, non esaten den kide baten segurtasuna «arriskuan» badago erakundeak lagundu egin behar diola. Lehenago, Aliantza Atlantikoko kide Frantziak eta Belgikak erakundearen kontseiluan honek Ankarari militarki laguntzen hasteko prestakuntzak abiatzea betatu zuten. Alemaniak Frantziaren eta Belgikaren jarrera sustatu zuen, baina ez zuen betorik ezarri. Hiru herrialdeon jarrerak krisia eragin zuen NATOren baitan. Bestalde, atzo Moskuk bat egin zuen Parisek eta Berlinek NBE Nazio Batuen Erakundearen arma ikuskatzaileen taldeak misioa segitzeko eskatuz sinatutako deklarazioarekin.

NATOk gehienbat airetiko erasoen kontrako unitateak igorriko lituzke Turkiara, hala erabakiz gero. Indar horiek ez lirateke Iraken kontrako gerran murgilduko; Bagdaden balizko erasoetatik «babestuko» lukete herrialdea. AEB Ameriketako Estatu Batuek eta Holandak iragarri dutenez, laguntza militarra eskaintzeko prest daude.

Holandaren kasuan, Alemaniaren Patriot misil batzuk eramango lituzke Turkiara, eta soldadu holandarrak arduratuko lirateke horien zaintzaz eta erabilpenaz. Hala, Berlinek, Amsterdamekin duen bi aldeko akordioaren bidez, zeharka lagunduko lioke Ankarari, nahiz eta NATOren kontseiluan horren kontra agertu. Ildo berean, AEBek Alemanian dituzten baseen inguruko segurtasuna sendotu du Berlingo gobernuak, eta Pentagonoak Pertsiko Golkora materiala eramateko bere aire baseak eta aire espazioa laga dizkie.

AEBetako Estatu idazkari Colin Powellek atzo adierazi zuenez, Turkia laguntzeko «betekizuna» du NATOk. Washingtonek bilateralki jokatzeko prestutasuna agerian utzi zuten atzo. Orobat, AEBek argudiatu dutenez, beren «segurtasun nazionala defendatzeko» egingo lioke eraso Iraki.

Aliantza Atlantikoaren etorkizuneko rola oraindik oso argia ez dela, Paris eta Berlinen, eta Washingtonen arteko ezadostasunek ondorio kaltegarriak izan ditzakete. Bere rol nagusia arriskuan egon daitekeen estatu

Frantzia, Belgika eta Alemaniak Turkia defendatzeko planak abiatzea eragotzi dute NATOn

Erakundearen krisia sortu da eta AEBek esan dute bilateralki jokatzeko prest daudela; Moskuk bat egin du Berlin eta Parisekin ikuskatzaileen misioa segitzearen inguruan



SERVICE DE PRESSE DE LA PRESIDENCE / EPA

Errusiako presidentea Vladimir Putin eta Frantziako, Jacques Chirac, Parisen, Soldadu Ezezagunaren oroitarrian.

JACQUES CHIRAC

Frantziako presidentea

«Frantziak, Errusiak eta Alemaniak bakearen baitan Iraki desarmatzeko aukerak emateko erabakia hartu dute»

duen rol militarra aldatzea aztertzea.

Mosku, Frantzia eta Berlinekin

Errusiako presidentea Vladimir Putin Frantziakoarekin, Jacques Chiracekin, bildu zen atzo Parisen. Biak ala biak Iraken kontrako gerraren aurka azaldu ziren atzo, eta NBERen arma ikuskatzaileen lanak jarraitzearen aldeko adierazpena egin zuten. Hala, Moskuk Parisek eta Berlinek auziaz duten jarrerarekin bat egin zuen. «Frantziak, Errusiak eta Alemaniak bakearen baitan Iraki desarmatzeko aukerak emateko erabakia hartu dute», esan zuen Jacques Chiracek.

NBERen Segurtasun Kontseiluan Iraken kontrako ezein eraso militar baimenduko lukeen zehazpen «betatzeko» eskatu zion atzo Bagdadek Moskuri. Bestalde, Human Shields Campaigneko (Giza Ezkutuen Kanpaina) autobus batzuk Istanbulera iritsi ziren atzo, Irakerako bidean.

Atzo AEBetako eta Erresuma Batuko armadetakozko hegazkinak Irakeko hegoaldean egindako bonbardaketetan gutxienez bi zibil hil eta bederatzi zauritu zituzten. Hain juxtu, atzo, Bagdadek onartu egin zuen AEBen U2 hegazkin espioiek Irak osoa hegaldatzea. Atzo arte ipar zein hegoaldean airetiko erasoak bukatzea exijitzen zuen Irakek hegazkin espioien presentzia onartzeko.

VATIKANOA

Roger Etxegarai gaur iristekoa da Bagdadera

Iraken kontra gerra saihesteko eginahal diplomatikoei jarraiki, Vatikanoko kardinal ohi Roger Etxegarai ezpeletarra igorri zuen atzo Bagdadera, Jordanian barrena. Lapurtarra Irakeko presidentea Saddam Hussein Aita Santuaren gutun bat ematekoa da. Bagdadek Vatikanuari ziurtatu dio Husseinek pertsonalki hartuko duela Etxegarai. Bilera gauzatzen baldin bada, Vatikanoren ordezkari bereziak Irakeko agintariari eskatuko dio NBERen arma ikuskatzaileen mi-

sioarekin elkarlanean erabat aritzeko. Etxegarai maiz izan da Ekialde Hurbilean misio diplomatikoetan. Bagdaden 1985ean izan zen lehen aldiz, Irak eta Iranen arteko gerran, eta gerra preso trukea burutzen lagundu zuen. 1998an itzuli zen, gerora gauzatuko ez zen Aita Santuaren bisita bat prestatzeko. Bestalde, iragan udaberrian Palestinan izan zen, Israelgo Armadak setiatutako Belengo Natibitate elizaren auzia zela eta.

Bagdadeko artzapezpiku latino Jean Benjamin Sleimanek «esperantza izpia» iritzi zion atzo Etxegaraiaren bisitari. Gerra piztuko balitz, «arrazoi ekonomikoengatik, eta ez kultural eta erlijiosoengatik» izango dela erantsi zuen.

kide bati laguntzea izaki, horretan ados ez jartzeari krisi usaina hartzen diote zenbait adituk.

NATOk idazkari nagusi George Robertsonek «zaila» iritzi

zion egoerari, baina azkenean akordio bat iritsiko dela aurreikusitua. Bitartean, AEBetako Defentsa idazkari Donald Rumsfeldek zera adierazi zuen:

«Zorigaitza dela uste dut». Rumsfeldek «Europa zaharra» deitu zion duela gutxi Alemaniari eta Frantziari, eta litekeena da Washingtonen Europar